**MOTZAK** ETXEGINA TALDEKOEN SANTA ESKEA BIHAR • **GEHIGARRIA** ANTON PAGOLARI ELKARRIZKETA

**KULTURA** I. BEREZIARTUA MUSIKA ESKOLAKOAK SOINU ZAHAR TXAPELKETAN

# BARREN

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2004ko otsailaren 6a/XII. urtea/475. zkia




FATRONIK ENPRESA MIKROAEROSORGAILU BAT PROBATZEN ARI DA AUBIXAN

# Haizeari energia lapurtuz

"HAIZEAK EKARRI, AIXIEK ERUEN" (Esaera zaharra)

# GREMIOEN GIDA

## AROZTEGIAK

**BIENA**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ **943 74 31 16**

**ETXEKIT**
Erreformak-proiektuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ **943 74 43 47**

**GARCIA**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ **943 74 32 38**

**LODOSO**
Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.
☎ **943 74 34 90**

**SORALUZE**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ **943 74 36 34**

**ULAZIA**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ **943 74 05 47**

**ZABALA**
Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
☎ **943 74 03 96**

## ISOLAMENDUAK

**GLAS CONTROL S.L.**
Isolamenduak
Olaso 27, 47. pabiloia
☎ **943 74 30 94**

## ITURGINTZA, GASA, KALEFAKZIOA ETA KLIMATIZAZIOA

**ANGEL**
Santa Ana, 5
☎ **943 74 17 61**
☎ **689 04 92 06**

**ONGI**
Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
☎ **943 74 28 80**

**PAGOAGA**
San Antolin, 13
☎ **943 74 02 79**

**TELLABIDE**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ **943 75 50 62**
☎ **607 75 50 62**

**ZALDUA**
Urasandi, 26
☎ **943 74 05 30**

**ZUBIZARRETA**
Ubitarte, 5
☎ **943 74 07 89**
☎ **608 14 30 40**

## PINTURAK

**BIOK DEKORAZIOA**
Santa Klara, 11 behea
☎ **943 74 15 52**
☎ **606 43 11 19-20**

**IPINTZA**
Foruen enparantza, 4
☎ **943 74 04 40**
☎ **607 74 04 40**

## ELEKTRIZITATEA

**ARAMAR**
Morkaiko, 1
☎ **943 74 12 80**

**AZPELETA**
San Frantzisko, 51
☎ **943 74 12 38**

**JOSEBA**
Pedro Muguruza, 29
☎ **943 74 09 02**
☎ **659 93 49 64**

**URZELAI**
Santa Ana, 12-14
☎ **943 74 13 76**

## IGELTSERITZA

**ANTONIO MARKEZ**
Urasandi, 24
☎ **943 74 34 18**

**ASKETA**
Osio, 7 DEBA
☎ **629 34 43 89**

**JOSE LUIS MENDEZ**
Urasandi, 24
☎ **943 74 29 87**
☎ **679 19 77 47**

**E. ARANDIA**
Urasandi, 17
☎ **605 70 52 04**

asteko notizia



## Iraultza

Ba al dakizue zein bi lanbidetan dagoen emakumea gizona baino hobeto ordainduta? Prostituzioan eta modelo munduan. Badira ezberdintasunak, baina bietan lantresna bera da: gorputza. Eta horri esker bizi dira. Hori baita kontua, bizitza. Eta batzuk nahi duten bezala bizi badira ere, beste asko ahal duten bezala bizi dira.

Ahal zuten bezala bizi izan dira urteetan emakumeak. Iraunbizi. Haurtzaro markatua, etorkizun determinatua. Mutila ezagutu eta musurik eman gabe ezkondu. Seme-alabak izan. Etxeko-lanetan bizitza lixibak nola xurgatzen zien ikusi. Bakardadeko negarra. Senarraren beharrak asetzeko ahalegina. Nahi eta ezina. Zorionez, iraultza eman da. Bakar batek bere inguruan egiten duen borroka txikia iraultza handia bihurtu ahal delako herri mailan, nazio mailan, mundu mailan. Iraultzari esker lortu dugu emakumeok gutxieneko duintasuna eta errespetua. Iraultzari esker eskuratu ditugu eskubideak. Plazerrak zer esan nahi duen ikasi dugu. Geure burua maitatzeak.

Iraultza da beharrezkoa. Horregatik salatu nahi dut Eliza Katolikoaren jarrera hertsia, atzeratua eta misoginoa. Ez baitut inondik inora ametitzen inork esatea tratu txarren erruduna iraultza sexuala izan denik. Iraultzak askatasuna eman digu emakumeoi. Iraultza geratzen ez den bitartean eskubideak bermatuak izango ditugu. Ni ez nau inork konbentzituko emakumea izateagatik gutxiago naizela, diru gutxiago kobratu behar dudala, beti polita eta argala izan behar naizela, eta tratu txarrak jasotzekotan, merezi ditudalako jasoko ditudala.

Nahi dudan bezala bizitzeko eskubidea dut. Eta ahal dudana egingo dut iraultza ez dadin sekula geratu.

**Jasone Osoro**



## Berriketan

- Umia, umia, lantzian behiñ akerran adarrak baiño okerragua izan biharrian zintzuagua izango baziña...

- Zeba, ama?

- El al don ikusten lehertuta nauala?

- Bueeeeeeno...

- Baiña... zer eitxen don berriz ere bentanatik zintzilikan? Benetan ez dakitt zer irakusten daben oiñ eskolian...

- Ba lenguan maixuak esan zigun Maka izeneko Elgoibartar batek liburu politxa atera dabala Elgoibarko euskeriari buruz..

- A bai! Denporalia eman dau lan horrekin eta lortu dau azkenian !

- Ama, eta nolakua da ba gure berbia?

- Elgoibarkua? Ba, begira, .. , ni txikixa nintzanian nere maixuak kontatu zigun Getarixakua zala bera eta handik etorri berri zala Ikastolara; behin eskolan zeguala ikasle batek esan ziola: “maixu, ingurrastia etxian ahiztu jata!”. Hori entzun zabanian ez zeban piperrik ez ulertu... Galdetu orain berari, urte hauetan seguru nago gu baiño geixao ikasi dabala Elgoibarko euskeriari buruz...

- Ama, erosiko dogu liburu hori?

- Bai horixe! Ahaztuta daukaguzen gauza asko agertuko diaz bertan. Baina itxoin egin biharko dogu uda ostera arte, orduan argitaratuko omen dabe eta... bittartian ikastaro bat antolatu omen dabe... Por tzierto, burura ekarri diazu Elgoibarko Izarrara joan behar naizela liburua erosteko apuntatzera... Ala, guazen aguro!

- Bale, bale, antxitxiketan joango gara... baiña... lagatzen diazu kopiñaren kotxekapotia eramaten?

**Edurne Bilbao**

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Kexak ....................5
motz Motz ....................8
gehigarria ....................13
kiRolAk ....................20
aGenda ....................24

2004-II-6

## JOAN ZEN ASTEKO KEXARI ERANTZUNA

Barrenen pasa den astean Kiroldegiko ordutegia "oso murritza" dela kexatzen zenari ondorengo hau adierazi nahi diot:

- Kiroldegiko igerilekua egunero 12 ordu eta erdi irekitzen dugula, goizeko 7:30etik 13:30era eta 15:00etatik 21:30era.
- Gipuzkoako Kiroldegietako igerilekuak bataz beste, 11 ordu eta erdi irekitzen direla.
- Eguerdian igerilekua ordu eta erdi ixten dugula aldagelak, komunak, takilak eta igerilekuko zikinkeriak berriro ere garbitu eta desinfektatu ahal izateko.
- Larunbatetan badagoela goiz jaiki eta bederatzietarako igerilekura etortzea gustatzen zaionik. Ordu horretan bataz beste, 14 pertsona etortzen dira.

**Ramon Mujika**
**Kirol Patronatuko Zuzendaria**

## ESKER OHARRA

Odol Emaileen Elkarteak eskerrak eman nahi dizkio laguntzaile guztiei orokorrean, zuen laguntzari esker eramaten baitugu aurrera gizatasun lan hau.

Aipamen berezia odol emaile guztiei, bazkide laguntzaileei, Elgoibarko Udala, Ibar-Txiki ardoak, Julio Bueno, Eroski, Altzolako Ura, Euskadiko Kutxa, Txankakua, Posta Zerbitzuak eta prentsa berriemaileak.

2003 urtean zehar, Elgoibarko ordezkaritzak 809 odol poetxo entregatu ditu Donostiako Odol Bankuan.

Eskerrik asko denori.

**Odol Emaleen Elkartea**

## POSTA BIDEZKO BOTOA EGITEKO EPEA IREKI DA

Martxoaren 14ean ospatuko diren hauteskundeak direla-eta, EAJ-PNVtik herritar orori adierazi nahi diegu, posta bidezko botoa egiteko epea irekia dagoela, eta egunean bertan bozka emateko aukera ez duzutenok, batzokira gerturatu zaitezkete, astelehenetatik ostiraletara goizeko 11:00etatik, 12:00etara, eta arratsaldez 19:00etatik 20:00etara.

**Elgoibarko EAJ-PNV.**

# Urruzunoren begi ezkutua

## Belaunaldi "pasota"



Pasotismoaren belaunaldia Zapatu iluntzean, neskatila pinpirin bat kalean behera doa azken modako telefono mugikorretik hizketan."Bidali mezu bat mobiletik"... "Bai, bai, bidaliko dizut, tio bueno horrena, joder, eske zela dauan...". Metro batzuk aurrerago, beste neskatila bat segapototik algara batean. "...Esta noche, juergaaaaaaa". Eta aurrerago, beste bat, substantziarik gabeko kontuez solasean. Maniki klonatuak. Ondo-pasa zale haur kapritxoso mimatuak "Gran Hermanoko" potxolokerien glamour-aren jarraitzaileak. Izpiritu kritiko gabeko euskal gazteak. Karlos Mahoma eta bere RIP taldearen soinu banda ez duten garai hauetan, klinex-ezko idoloak nagusi: Bisbal, Bustamante eta beste. Idealik gabeko neska-mutilak. Kultur kolonialismoaren biktimak. Euskal Herriarekin eta euskararekin konpromisua, zero koma zero. Indiferentziaren apoteosia. Eskapismoaren gailurra. Belaunaldi "pasota".

**Jon Eugi**


ASTEKARIA
BARREN

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
☎ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGITARATZAILEA
Elgoibarko Izarra

**LAGUNTZAILEA** Elgoibarko Udala **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegii **ZUZENDARIA** Asier Orbea **GEHIGARRIEN ARDURADUNA** Maite Uriarte **PUBLIZITATEA** Amaia Erkizia **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **GERENTZIA** Jon Peli Uriguen **KOLABORATZAILEAK** Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. **AZALEKO ESAERA ZAHARRA** Gotzon Garateren liburutik **INPRIMATEGIA** Gertu Koop. E. **TIRADA** 4.175 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*



kutxa zuri esker
DANOBAT MAQUINAS HERRAMIENTA
GOITI GRUPO DANOBAT
ESTARTA GRUPO DANOBAT


BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzek ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia.**

## KEXAK

◆ **Patinetean ibiltzea gustuko duen mutiko talde batek esan digunez, Urasandiko U-a apurtuta dago**: “Patinetearekin ibiltzeko Urasandiko U-a apurtuta dago, zulo asko ditu. Konpondu egin behar da, edo bestela beste U hobeago bat egin. Herri osoan ez dago patinetearekin ibiltzeko leku aproposik, eta dagoen bakarra egoera txarrean dago”.



◆ Unibertsitateko ikasle batek azaldu digunez, **azterketa garaian, Udal Liburutegia asteburuetan ere irekita egon beharko litzateke**: “Asteburuetan Elgoibarko liburutegia itxita egoten denez, Eibarrera joan nintzen ikastera, eta bertan ikasle elgoibartar mordoa aurkitu nituen, ni bezala ikasteko toki baten bila. Ez zegoen tokirik, eta ilara oso luzeak zeuden ikastera sartu ahal izateko. Soraluzeko Liburutegiak ere, azterketa garaian ordutegia eta zerbitzuak gehitu egiten ditu, eta Elgoibarren ere gauza bera egin beharko litzateke. Ikasle askok asteburuak aprobetxatzen dituzte ikasteko, eta jende asko joaten da liburutegira, beraz, gure eskaria kontuan izatea gustatuko litzaiguke”.

◆ Herritar batek jakinarazi digunez, **Errentxindiko telefono kabina inguruan baldosak solte daude**: “Baldosa mordoa solte eta apurtuta daude Erretxindin. Euria egiten duenean, arropa guztiak zikintzen ditugu, baldosa solteak zapaltzean ur mordoa ateratzen da-eta.

◆ **Elgoibartik Donostiara autopistaz joaten den auto gidari batek esan digunez, autopistako asfaltoa oso egoera txarrean dago**: “Autopistako asfaltoa altxatuta dago zona askotan, baina batez ere, Elgoibarren. Denbora asko darama horrela. Sekulako zuloak daude, eta konpontzeko beharra dago. Egunen batean ezbehar handiren bat gertatuko da, eta orduko beranduegi izango da”.




## TXALOAK

◆ Elgoibartar batek honako txaloa helarazi digu: "**GORATU enpresako telefonistak txalotu nahi ditut. Bi telefono zenbakitara deitu eta bietan euskaraz hartu naute**. Elgoibarren euskaraz bizi nahi dugunontzat pozgarria da enpresekin ere euskaraz egin dezakegula ikustea. Segi berdin!"



# Mikroaerosorgailuak

# haize erroten ondo mo

**_Elgoibarko Fatronik teknologi zentroak diseinatu eta instalatutako mikroaerosorgailu prototipo bat, energia berriztagarria ekoizten ari da San Pedroko Aubixa euskal girotze barnetegian. Estatu eta Europa mailan zabaltzen hasi den teknologiaren eredu izan arren, 2003ko urriaren amaieraz geroztik dago martxan Euskal Herrian diseinatu den lehendabiziko modeloa. Momentuz, Aubixako lau hozkailu prototipoak ekoiztutako energia berriztagarriaz elikatzen dira. Saioak emaitza onak emanez gero, prototipoa salgai jarriko dute epe laburrean. Irantzu Urrutikoetxea, Jose Ramon Zugadi eta Iker Lain Carrascosa izan dira proiektuko arduradunak eta Ikerrek azaldu dizkigu nondik norakoak._**

### ZER DA MIKROAEROSORGAILU BAT?

Elgean edo Oiz mendian dauden aerosorgailu erraldoiak baino hiru aldiz txikiagoa da Aubixa barnetegiaren lur sailetan dagoen mikroarosorgailua. 30 metroko garaiera izan ordez, 10 metro ditu eta palek bi metroko luzera dute 15 metrokoa izan beharrean. Bistakoa da tamainan dagoen aldea. Energiari dagokionez, gutxiago ekoizten du mikroaerosorgailuak baina paisaian duen eragina ere askoz xumeagoa da. Batetik inpaktu estetikoa txikia da (urrunetik ez da ia igarri ere egiten) eta bestetik hegazti eta faunari ia ez dio kalterik eragiten. Errazago instalatu eta mantentzen dela da beste abantaila bat.

### HAIZE ETA EGUZKI ENERGIA

Fatroniken sistema hibridoa jarri du martxan Aubixan. Bi energi iturri berriztagarri ustiatzen dituzte batera. Izan ere, mikroaerosorgailuak haizearen bitartez lortzen duen energia ekoizpenari eguzki energia lortzeko 120 W-ko lau plaka fotovoltaikoren laguntza gehitu diote. Bi energia iturri berriztagarri hauen erabilerarekin eguneko 9,6kWh-ko energi ekoizpena lortzea aurreikusten dute. Mikro-energia eolikoaren bidez ekoiztutako kWh bakoitzeko 0,277 petrolio litro baliokideen erreketa sahiesten da modu honetan.

### SARE ELEKTRIKORIK GABE

Energia lortzeko sare elektrikorik behar ez izatea da sistema hibrido honen berezitasunik handienetarikoa. Azken aldian ugaritzen ari diren parke eolikoek behar duten azpiegitura erraldoiarekin konparatuz  etxe alboan aerosorgailu bat jartzearen aldeko apostua egin du Fatronikek. Sare elektrikoa helaraztea garestiegia den tokietan, haren ordezko izatea du helburu. “Nahiz eta ezaugarri honek berak diseinuaren konplexutasuna ere handitzen duen, tentsioaren eta frekuentziaren kontrola sistemaren gain lagatzen baititu, erreguladore eta baterien presentzia behartuz” azaldu digu Ikerrek.

“Horrelako sistemak oso egokiak dira herrigune eta hirietatik kanpo, landa-eremutan edo garatze bidean dauden lurraldeetan. Sare elektrikoaren ordezko izan daiteke hura helaraztea garestia izan daitekeenean eta, aldi berean, lurraldearen garapen jasangarria bermatzen du baliabide naturalekiko kontzientzia eta begirunea zabaltzen baitu”.



**IKER LAIN CARRASCOSA,**
**energia eolikoaren osagarri diren eguzki plaka fotovoltaikoen aurrean**

### DISEINUAREN EZAUGARRIAK

Aerosorgailuaren hegalek tortsio-angelu aldakorra dute errotik muturrera, eta horrenbestez, haizearen hegalarekiko eraso-angelua konstante mantentzen da luzera osoan. Aerosorgailuak 3,5 m/s inguruko abiadurarekin ekiten dio biraketari, eta 9,5 m/s inguruko abiadurarekin atzemeten du 2,5 kW-eko potentzia izendatua. Honez gain, haizearen norabidearen arabera libre biratzeko aukera du, hau da, 360º bira daiteke, iparrorratz baten moduan. Ikerrek azaldu digunez haizearen gehiegizko abiaduraren kontrako babes-sistema diseinatzeak eman dizkie zailtasun gehien, “babes-sistema sistema pasibo bat da, eta mikroaerosorgailuak duen diseinu mekanikoan eta biratzeko askatasunean oinarritzen da, aerosorgailua haizearen indarra sahiesteko moduan mugitzen baita. Horretarako, miikroaerosorgailua haizeak jotzen duen aldera begira jarri ordez, beste alde batera begira jartzen da, horrela, errotorearen abiadura txikiagotuz. Biraketaren galgaketa honen bitartez, sistema gainkarga elektriko eta mekanikoetatik babesten da. Haizeak abiadura jakin bat gainditzen duenean, 16 m/s inguru, jartzen da martxan automatikoki aerosorgailuaren potentziaren kontrol sistema”. Hain zuzen ere babes sistema hau izan da Fatronik teknologi zentruaren ekarpenik nagusiena.

# orengo
# dernoak



## Fatronik

1986. urtean sortu zen Fatronik Elgoibarren makina erreminta ekoizle talde baten kezka eta beharrei erantzuteko. 1999. urtean Mekatronika Zentrua bilakatu zen orientazio industriala eta teknologiari dagokion eraldaketaren bitartez. Mekanika, elektronika, informatika eta fabrikazio prozesuen bateratzea xede nagusitzat hartuta, egun makina erreminta, aeronautika, energia berriztagarriak eta ekipo gaiak bezalako sektoreentzako produktu, prozesu eta sistemak garatzen ditu. Energia berriztagarriei dagokienez, aipatzekoa da munduko ekoizle handienetakoekin batera ingeniaritza mekanikoaren eremuan garatutako zenbait proiektu: dorreen diseinua eta kalkulua, xasis egituren diseinu eta egiaztatze estrukturala, fabrikazio eta muntaia prozeduren balioztatzea, plaka fotovoltaikoentzako eguzki-jarraitzaile elektriko eta hidraulikoen diseinua, etab.

### Ebaluazio fasea

Mikroaerosorgailuak hilabete batzuk pasako ditu balioztatze-fasean. Bitarte horretan hainbat parametro, sensore eta datu neurtuko dituzte sistema eraginkorra den ziurtatzeko eta hobekuntzak egin ahal izateko. Datu horiek guztiak tokian bertan ipinitako sentsoreetatik Fatronik-en egoitzara bideratzen dira GPRS urruneko kontrol sistemaren bidez. Ikerrek argitu digunez, “Mikroaerosorgailuak gaur egungo etxe arrunt batek behar duen adina energia ekoizteko gai da, baina une honetan Aubixako lau hozkailuk baino ez dute izango energia-iturri berriztagarria”. Izan ere, ebaluazio-faseak irauten duen bitartean, kontrola kudeatzeko beharrezko elektrizitatea sistemak berak ematen duenetik hartuko du. Balioztatze eta frogaketa fasea gainditzen badu, Fatronik-ek prototipoa industrializatzeko asmoa du epe laburrean.



### Datu Teknikoak:

-Potentzia izendatua: 2.5kW
-Haize-abiadura izendatua: 9,5 m/s
-Sorgailua: iman iraunkorrak (PMG)
-Diametroa: 4,5 m
-Altuera: 10 m
-Hegalak: 3 (2.1 m. bakoitzak)
-Orientazioa: pasiboa (tail vane)
-Potentzia kontrola: pasiboa (side furling)

# Elgoibarko Udalak, Ahize Hizkuntza Aholkularitzak eta IMHk elkarlan hitzarmena adostu dute

## IMHko euskararen erabilera plana sustatzea da hitzarmenaren helburua

Marivi Aguirregomezcorta Elgoibarko alkateak, Ahizeko Mertxe Mujikak eta IMHko Joxean Egañak elkarlanerako hitzarmena sinatu zuten joan zen otsailaren 3an, udaletxeko Pleno Aretoan. Hitzarmen honen helburu nagusia, IMHren 3 urterako euskara erabilera plana sustatzea da, eta bide batez, euskararen erabilera lan mundura zabaltzea nahi da.



*Ezkerretik hasita: Arrate Arrieta, Mertxe Mujika, Marivi Agirregomezkorta eta Joxean*

### IMH industrian eredu

IMHk industria munduari begira harreman estua dauka enpresekin. 13 urteetan zehar, 1.000 ikasle inguru lan munduan sartu ditu eta 25.000 langilek ikastaroak egin dituzte ikastetxeko instalazioetan. IMHk badu, beraz, lanarengan eta gizartearengan eragina, eta euskara plana abiatzeak berarekin harremana daukaten beste pertsona eta erakundeetan ere eragin dezake. Bestalde, IMHk, pertsonari eta haren garapenari erreparatzen dio, hau da, bezeroari, langileen osasunari eta eskubideei, emakumearen lan-munduratzeari, ingurumenari, eta baita enpresaren eta herriaren egoera soziolinguistikoari.

IMHk gizartearekiko konpromisoa hartua dauka, eta baita euskarari dagokion konpromisoa ere: Gurean Bai egitasmoan 8 urtetan aritu da, azken 3 urteotan, Heziketa Zikloetan D eredua ezarri du, eta langileen %68a euskaldunak dira.

Plan honetan abiatzea ez da bakarkako gauza, ordea. IMHk harremana daukan erakundeekin sare-lanetan aritzen saiatuko da. Ezinbestekoa da Udalarekin lortutako akordioa eta baita Elgoibarko Izarrarekin ere elkarlanean aritzea. Eskualdetik kanpora, eskura datozkion eremuetan ere parte hartzeko aukerak aprobetxatuko ditu.

# Espainiar estatuak erasotuen Herri Ekimena aurkeztu zen Foruen Plazan urtarrilaren 31n

Euskal Herriko beste hainbat herritan bezala, Elgoibarren ere, Espainiar Estatuak Erasotuen Ekimena aurkeztu zen joan zen larunbatean, urtarrilaren 31n. Espainiar Estatuak Euskal Herriari eta euskal hiritarroi egindako erasoak salatzeko asmoz jaio da ekimen hau. Ezker abertzaleak bultzaturiko kanpaina bat da Espainiar Estatuaren aurkako salaketak jasotzeko eta maiatzean Nazio Batuen erakundean aurkezteko. Nazio mailan Euskal Herria aitortu eta errespetatu lemapean antolaturiko ekimenaren barruan kokatzen da.




Besteak beste, Euskal Herria ukatzea, Espainiar Konstituzioa inposatzea, autodeterminazio eskubidea ukatzea, Estatu terrorismoa aplikatzea, Euskal gazteria espainiar soldaduskara joatera behartu eta intsumisoak kartzelaratzea, adierazpen askatasuna debekatzea, alderdi politiko eta erakundeak ilegalizatzea, Nafarroan ikurriña debekatzea, torturaren erabilera, preso politikoen sakabanaketa, independentisten aurkako apartheid politikoa eta gure hizkuntza, ikastolak eta euskaltegiak erasotzea izan ziren Espainiar Estatuari egin zizkioten salaketak.

### Salaketak biltzeko mahaia

Honetaz gain, datorren otsailaren 13an eta 14an mahaiak jarriko dituzte kalean, herritarren salaketak jasotzeko. Ostiralean Nafarroa Plazan egongo dira, eta larunbatean Foruen Plazan. Helburua ahalik eta salaketa gehien jasotzea da, Nazioarteko Tribunalera eramateko.

## Gurasoak ipuinak irakurtzera eta kontatzera animatzeko ikastaroa antolatu du Udal Liburutegiak



Elgoibarko Udal Liburutegiak antolatuta, Peio Añorga ipuin kontalariak gurasoak ipuinak irakurtzera eta kontatzera animatzeko ikastaroa eskainiko du. 0 eta 5 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoei zuzendutako ikastaroa izango da. Ipuinek zerbaitetarako balio dutela jakinaraztea izango da ikastaroaren helburu nagusia, hau da, norberaren seme-alabekiko harreman afektiboa, komunikatiboa eta irakur zaletasuna bultzatzeko ipuinak ezinbesteko tresnak direla azalduko zaie partehartzaileei. Ikastaroaren lehenengo atalean alde teorikoa jorratuko da, eta ondoren alde praktikoa.

Ikastaroak hiru eguneko iraupena izango du, martxoaren 8an, 15ean eta 22an eskainiko da. Plazak mugatuak izango dira, eta izenemate epea errespetatuko da. Ikastaroak 5 euroko kostua izango du, eta ordutegia izena ematen duten gurasoen artean adostuko da, beti ere, ondorengo bi aukera hauen arteko ordutegi bat izan beharko da: Arratsaldeko 15:00etatik 16:30era, edo 18:30etik 20:00etara. Interesatuek Udal Liburutegian bertan eman dezakete izena.

## Giro bikaina izan zen San Juan Bosko Egunean

Elgoibarko BH Institutuan San Juan Bosko Eguna ospatu zuen joan zen ostiralean, urtarrilaren 30ean. Urtero bezala, ekitaldi desberdinak antolatu zituzten. Goizean krosa eta mendi bizikleta lasterketa izan ziren Mintxetan. Ondoren goitibeherak izan ziren San Rokeko aldapan. Emozio handia izan zen, eta parte hartzaileek trebezia handia erakutsi zuten. Tortila txapelketan sukalderako daukaten abilezia frogatu zuten. Kiroldegiko kantxan indarrak neurtu zituzten soka-tira lehiaketan, eta futbitoan. Antzerki saioarekin barre egiteko aukera bikaina izan zuten ikasle eta irakasleek, eta bazkal ostean, Guass dantzalekuan amaitu zuten eguna. Jende ugari ibili zen kalean, ikasle askok hartu zuen parte ekintza desberdinetan, eta giro bikaina izan zen egun osoan zehar.



Aitor

## Elgoibarko ikastetxeetan ere ospatu zuten Santa Ageda Eguna

Ikastolako, Pilar Ikastetxeko eta Herri Eskolako haurrek Santa Ageda Bezpera eguna ospatu zuten joan zen otsailaren 4an. Baserritarrez jantzita, eta makila eskuan hartuta, egun honetan ohikoak diren koplak abestu zituzten. Ikastetxe bakoitzak bere erara egin zuen kalejira. Herri Eskolako ikasleak Urasandiko parkera atera, eta eskolako txikienei abestu zieten. Pilar ikastetxekoak berriz, eskolako gimnasioan bildu ziren, eta gurasoen presentzian abestu zituzten koplak. Ikastolako ikasleak, kalejira egin zuten. Ikastolan hasita, eta herriko kaleak kantuz jantzi ostean, Plaza Handian bukatu zuten kalejira.







2004-II-6

**Genero biolentzia "iraultza sexualaren" ondorioa dela dio Espainiako Apezpikuan Batzarrak**

# ZER IRITZI DAUKAZU APEZPIKUEK ESANDAKOAREN GAINEAN?



## PAKI BARREIROS

**50 urte, garbitzailea**

Ez dut ezer entzun, baina ez dut uste hori horrela denik. Erasotzailea beti izango da erasotzailea, eta ez zaio errua iraultza sexualari bota behar.

## ESTI BEGIL

**37 urte, peoia**

Ez dot gauza haundirik entzun, baina apezpikuak burutik jota daudela iruditzen zait. Beraiek horrelako pentsamoldea izatea, sekulako atzera pausoa da.





## ESPERANZA DEL PINO

**34 urte, garbitzailea**

Sekulako astakeria iruditzen zait. Bazen emakumea sukaldetik ateratzeko garaia! Gaur egun gauza asko lortu ditugu, eta apezpikuek horrelakoak esatea astakeria bat da.

## NIEVES FERNANDEZ

**50 urte, etxekoandrea**

Ez nago batere ados, horrek ez dauka zentzurik. Emakumeak egunetik egunera indar gehiago hartu eta, gizonarengandik independizatu behar du.





## AMAIA ARRIZABALAGA

**34 urte, administraria**

Oin dala 1000 urteko pentsamoldea iruditzen zait, ez da egungo errealitatea. Eliza oso atzeratuta dao gauza askotan, eta honek ez dio ezertan lagunduko arazo honi.

## BENIGNO TENA

**38 urte, arotza**

Ez dauka zerikusirik. Apaizak asunto guztietan sartzen dute muturra, eta horrek ez dio arazo honi batere mesederik egingo. Gai serioa da.






***ESKERTZA***

*2004ko urtarrilaren 11an, 77 urte zituela hil zen*
***PLACIDA ETXANIZ ARRIZABALAGA**ren sendiak,*
*bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



## Atxutxiamaikak antolatuta jaialdi erraldoia izan zen Ikastolako frontoian



Atxutxiamaika Aisialdi Taldearen eskutik, joan zen larunbatean, urtarrilaren 31n, jaialdi erraldoia izan zen Ikastolako frontoian. Arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara, Haur Hezkuntzako 60 haur inguru bildu ziren frontoian, eta denetariko ekintzak egiteko aukera izan zuten, 11 begiraleen laguntzaz. Bost txoko desberdinetan banatu zuten frontoia. Hiru txokotan tailer desberdinak egin zituzten, beste txoko bat aurpegia margotzeko gune bihurtu zuten, eta azken txokoa karaokea izan zen. Azken orduan, magia ikuskizun bat ikusteko aukera ere izan zuten, eta antolatzaileek esan digutenez, haurrak oso gustura ibili ziren.

## GAZ-T Aisialdi Taldearekin eskiatzera

GAZ-T Aisialdi Taldeak DBH 1,2,3 eta 4. mailakoentzat eski irteera antolatu du. Datorren otsailaren 28 eta 29an Astunera joango dira. Materiala alokatu behar dutenentzat 100 euroko kostua izango du txangoak, eta gainontzekoentzat 80 euro (eski eta bidai asegurua barne). Materiala alokatzean, eskiak edo snowa alokatzeko aukera izango da, eta behar dutenentzat, ikastarotxo bat egiteko aukera izango da. Izena emateko otsailaren 9tik 18ra izango da. Plazak mugatuak dira, eta matrikulazio ordena errespetatuko da. Dirua Kutxako 2101 0036 65 0124148420 kontu korronte zenbakian sartu behar da, eta ordainagiria, Elgoibarko Izarra Kultur Elkartera eraman beharko da, izenemate orriarekin batera. Interesatuek, 943-74 16 26 (Nerea Oñederra) telefonoan jasoko dute informazio gehiago.

## Ikastolakoak Donostiako Zientzi Museoan izan ziren



Elgoibar Ikastolako DBH 1. mailako ikasleak Donostiako Zientzi museoan izan ziren. Gelan Astronomiako gaia lantzen ari direnez, hainbat kontzeptu hobeto ikasteko, eta praktikan ikusteko aukera izan zuten Miramoneko Kutxaespazioan. Astronomiari buruzko tailer batetan parte hartu zuten eta Planetariumean planeten eta izarren ereduak eta mugimenduak aztertu ahal izan zituzten. Bukatzeko beste esperientzietan ere hartu zuten parte; besteak beste, optika eta mekanika, baina gehien bat Unibertsoari buruzko gaiak landu zituzten. Benetan interesgarria izan zela, eta gauza asko ikasi zituztela kontatu digute.

## Herri Eskolako ikasle eta gurasoak Arauntza mendian izan ziren

Herri Eskolako Guraso Taldeak antolatuta, Herri Eskolako ikasle eta gurasoak Arauntza (612 metro) mendian izan ziren joan zen urtarrilaren 25ean. Azpeitiko tren geltoki ondotik abiatu ziren baserri artean mendian gora. Pinu artean egin zuten ibilbidea, eta eguraldi txarra izan zuten arren, gailurreko paisaiaz gozatzeko aukera izan zutela kontatu digute.

Hurrengo mendi irteera otsailaren 15ean egingo dute, Itziartik Andutz mendira.



***Hamaiketakoa jan ostean atera zuten argazkia mendi***

# URTARRILA

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira **943 74 41 12** telefonora edo bidali e-postaz **barren@topagunea.com** helbide elektronikora.

## JAIOTAKOAK

**Iker Benito Astigarraga,**
urtarrilak 1
Francisco Javier eta Maria Adelaida



**Miren Armentia Villena,**
urtarrilak 7
Jose Alberto eta Maria-Isabel



**Markel Orbea Barrenetxea,**
urtarrilak 21
Asier eta Esther



**Sara Iriondo Fernandez,**
urtarrilak 22
Alberto eta Ana-Guadalupe



**Jon Maiztegi Arzuaga,**
urtarrilak 24
Santiago eta Begoña



**Markel Labrador Griñon, urtarrilak**
29
Andoni eta Susana

## HILDAKOAK

**Asunción Arrillaga,**
91 urte, urtarrilak 1

**Josefa Gabilondo,**
91 urte, urtarrilak 7

**Sabino Gorostiza,**
81 urte, urtarrilak 8

**Pedro Artetxe,**
87 urte, urtarrilak 8

**Modesta Careaga,**
84 urte, urtarrilak 8

**Patxi Albizu,**
67 urte, urtarrilak 9

**Mª Placida Etxaniz,**
77 urte, urtarrilak 11

**Catalina Rosillo,**
82 urte, urtarrilak 18

**Valentin Aizpitarte,**
32 urte, urtarrilak 19

**Pedro Jose Arriola,**
77 urte, urtarrilak 20

**Remigio Bernedo,**
83 urte, urtarrilak 21

**Victor Quintano,**
53 urte, urtarrilak 21

**Benedicta Zabala,**
75 urte, urtarrilak 22

**Txomin Leiaristi,**
78 urte, urtarrilak 24


ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

*KUTXAK · TRASLADOAK ·KOROAK*



NORBANAKOEI eta KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako erietxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 14  20 870 ELGOIBAR
**Tel.:** (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01

BARREN ASTEKARIA
2004ko otsaila/XII. urtea/475. zkia
GEHIGARRIA HILEKO ELKARRIZKETA

# elkarrizketa



EUSKAL ETA NAFAR ARKITEKTOEN GIPUZKOAKO ARKITEKTO ESKOLAKO PRESIDENTEA DEN ANTON PAGOLA AIZPIRI, SAN BARTOLOME 10EAN JAIO ZEN ORAIN DELA 49 URTE, BAINA DONOSTIAN BIZI DA GAUR EGUN. PLAZA TXIKIKO ESKOLETAN IKASI ZUEN ETA EIBARKO LA SALLEN EGIN ZITUEN BATXILERGO IKASKETAK. ARKITEKTURAKO KARRERA BARTZELONAN EGIN ZUEN UPC-N, ETA PER ARKITEKTO ESTUDIOAN EGON ZEN LANEAN IKASTEN ZEGOEN BITARTEAN .GERO, DONOSTIAN, LUIS PEÑA GANCHEGUI ARKITEKTOAREKIN HAINBAT KOLABORAZIO EGIN ZITUEN. BERANDUAGO, 5 ARKITEKTOEREKIN BATERA ESTUDIO BAT SORTU ONDOREN, L.UZCANGA ARKITEKTOAREKIN ELKARTU ZEN ETA PARE BAT NAZIOARTEKO LEHIAKETA IRABAZTEAK BEHAR ZUEN BULTZADA EMAN ZION ARKITEKTO ELGOIBARTARRARI. ORAIN BERE ESTUDIO PARTIKULARA DU ARKITEKTO GAZTEEKIN. EHU-KO ARKITEKTURA ESKOLAN PROIEKTU ARKITEKTONIKOEN IRAKASLEA ERE BADA.

## Anton Pagola

"LANBIDE GOGORRA DA, ERANTZUNKIZUN HANDIKOA, BAINA KONPENTSATU EGITEN DU".

ANTON PAGOLA ARKITEKTOA DIO HEGO INTXAURRONDON KOKATUA DAGOEN BERE ESTUDIOKO PLAKAK. TXIRRINA JO BEZAIN LASTER GAZTE BATEK ATEA IREKI ETA ANTON PAGOLA AIZPIRIREN BULEGORA ERAMAN NAU ZUZENEAN . BIDE HORRETAN HIRUZPALAU ARKITEKTO GAZTE IKUSI DITUT BERAIEN ORDENAGAILU PAREAN, HAMAIKA PLANO, HAMAIKA PROIEKTU MAHAI GAINEAN. ERA ADIKORREAN EMAN DIT ESKUA, "ZENBAT ERAIKIN MARRAZTU OTE DITU ESKU HAUEKIN!" PASA ZAIT BURUTIK. ZIGARRO BAT PIZTU DU NIK GRABAGAILUA PIZTEN DUDAN BITARTEAN.



# Anton Pagola

## “Elgoibarko plaza, Eu

**Zergatik arkitektura?**

Txikitan matematika eta marrazketa gogoko nituen eta beti esaten da horrelako kasuetan: mutil hau arkitekto izango da etorkizunean. Gainera familian gogo handia zegoen nik arkitektura ikas nezan. Dena den, batxilergoan arte ederrak edo arkitektura ikastearekin zalantzak izan nituen, izan ere marrazketa teknikoa eta artistikoa oso gogoko nituen. Baina azkenean nire etorkizuna arkitekturatik bideratzea erabaki nuen, alde batetik jarduera pragmatiko eta teknikoa delako eta bestetik bizi nintzen inguru industrialak erakarrita.

Egia esan behar badut ez naiz erabakiaz damutzen. Lanbide gogorra da, erantzunkizun handikoa, baina konpentsatu egiten du. Poztasunek arazoek baino pisu handiagoa dute zalantzarik gabe.

**Gazteek arazo asko izaten dituzte gurasoen etxetik alde egiteko, batez ere etxebizitzek dituzten prezioengatik. Ba al dago arkitektoen gremioak hau gutxitzeko egin dezakeen zerbait?**

Arkitektoek ez daukagu etxebizitzen prezioen inflazioan eraginik. Beste gremio bat besterik ez gara. Lurraren faktoreak eragiten du prezioen igoeran, eskari-eskaintzaren legean oinarritzen da. Horregatik diot inflazio honek ez gaituela aberastu.

**Noiz edo noiz entzun izan dut Arkitektura eskoletan Eibarko herria jarraitu behar ez den exenplu arkitektoniko gisa jarri dutela maisuek. Egia al da?**

Eibar izugarria da! Tradizio industrialak bultzatuta ahal zuten hiria eraiki zuten. Bidean topatu zituzten muga eta oztopoak kontuan hartu behar dira. Horregatik hainbat eraikin altu zeuden etxebizitza, komertzio eta industria batera zituztenak.

Behin "Cátalogo Ibérico de Arquitectura Industrial"eko arduradunekin bilera bat izatea pentsatu genuen Euskal Herrian, eta Eibar aukeratu genuen topagune bezala. Jendea harrituta geratu zen Txonta eta Matxaria bezalako auzoetan industria eta etxebizitzak batera ikustean.

Eibarren industria hiri erdian egon izan da eta etxebizitza kanpoaldean. Hori izan da beti bere xarma. Eibarko alkateak esan du hori aldatu behar dela, baina nire iritziz hiriaren ondare historia ez da oztopo izan behar. Hamaika modu ezberdin daude gauzak egiteko eraikinak lurrera bota beharrean.

**Eta Elgoibar? Zer berezitasun ditu arkitektura aldetik?**

Jendeak Elgoibar zein zatarra den esaten didanean benetan herria ezagutzen ez duela pentsatzen dut. Elgoibar lurralde bat da, ez da herri barrua bakarrik kontuan hartu behar. San Pedro, San Roke, Urruzuno, etabar. Paisaia benetan polita dauka gure bailarak. Hirigunea Elgoibar osoaren zati bat besterik ez da. Elgoibarko plaza, Euskal Herriko pla-

# uskal Herriko plaza barroko osoena da"



"NIK TXABOLISMOA EZAGUTU DUT ARTETXE INGURUAN, BAINA 4 EGUNETAN, EZ DAKIT NOLA, GUZTIEK ETXEA ZUTEN"

za barroko osoena da: Eliza, frontoia, udaletxea eta arkupedun etxeak denak plaza berean. Gainera hirigune historikoarekin bateginik, dorretxeraino.
60.hamarkada arte Elgoibar oso bukolikoa zen, hala ere garapenarekin logela eman beharra zegoen jende askori. Nik txabolismoa ezagutu dut Artetxe inguruan, baina lau egunetan ez dakit nola guztiek etxebizitza zuten. Egoera horretan gauza gogorrak egin ziren arkitektura aldetik, baina denborarekin konpontzen joan dira.

**◗ Borragoma magiko bat izango bazenu, zer ezabatuko zenuke Elgoibartik?**
Behin irakasle baten aurrean esan nuen eraikin bat oso zatarra zela eta zera erantzun zidan: begira Anton, ziurrenik eraikin hori horrelakoa da beste era batera egitea ezinezkoa zelako. Horregatik ez nuke borragoma erabiliko, nik denbora erabiliko nuke akatsak konpontzeko. Nola ezabatuko dugu norbaiten etxea? Nahiz eta gaizki egon! Umilak izan gaitezen eta uler dezagun gauza guztien zergatia.

**◗ Ba al dago Elgoibarren atentzioa deitzen dizun eraikuntzarik?**
Artetxeko etxeak, San Pedroko fabrika zena, Sigma eta San Pedroko egoitza multzoak. Jendeak ez du hau ulertuko, normalean atentzioa deitzen duten eraikinak modernoak, garbiak, txundigarriak izaten direlako. Baina askoz ere interesgarriagoak dira arazo zailei (logela arazoak, etxebizitza ekonomikoak) irtenbidea ematen dieten eraikinak.

**◗ Zein hiri edo herritan biziko zinateke gustura?**
Azken aldian Soria oso gogoko dut. Paisaia bakartia, dentsitate txikikoa. Finlandia edo Kanadara ere joango nintzateke gustura. Kanada adibidez, oso aberatsa delako eta kultura anitz elkartzen direlako bertan. Hala ere, Elgoibarren, San Pedro aldean pozik biziko nintzateke.

**◗ Zer iruditzen zaizu dorre bikiak zeuden lekurako Daniel Libeskind arkitektoak aurkeztutako proiektua?**
Libeskind arkitekto interesgarria da, baina kalitate handiagoko arkitekto batek egin zezakeen lekuak daukan garrantzia dela eta. Arkitektura amerikarra teknikoki ia perfektua da, baina askotan poesia falta zaio. Nolabaiteko hoztasuna nabaritzen diot proiektuari baina ez dut gehiegi ezagutzen.
Dorre bikien azkeneko pisuko kristala oin puntez ukitu eta behera begiratzerakoan sentitu nuena ez dut sekula ahaztuko. Dorreak arkitekto askok kritikatu zituzten baina arrazoirik gabe, nire iritziz.

**◗ Zein proiektu duzu eskuartean?**
Laderan etxebizitza eskalonatuak, Irunen eliza pareko Juncal plazan beste etxebizitza batzuk...
Lehiaketa askotan ere hartzen dugu parte, honek fresko egoten laguntzen baitu. Sevillako Encarcacion Plazarako proiektua bat prestatzen ari gara, baina nazioartekoa denez oso zaila izaten da zerbait irabaztea. Hala ere, Elgoibarren eraikitzea gustatuko litzaidake, oso lan gutxi egin baitut nire herrian.



"DENBORA AKATSAK KONPONTZEKO ERABILIKO NUKE"

# ANTON PAGOLAREN

## lanik esanguratsuenak



*Babes Ofizialeko 68 etxebizitza*

*(Bergara)*





*Zurriolako fatxada maritimoaren urbanizazioa.*

*(Donosti)*



*Golf Basozabal*



*Ansioko metro eta autobus geltokia, galeria komertziala.*

*(Barakaldo)*





*Trintxerpeko liburutegia eta alkatetza.*

*(Pasaia)*

## besteen ahotan



**Ciriaco Aizpiri** Anton Pagola Aizpiriren osaba "Etxean asko poztu ginen Antonek arkitekturaren bidea hartu zuenean. Orduan unibertsitate ikasketak egiteak koste handia zuen eta etxean baliabide guztiak eman zitzaizkion arkitekturaren bidea jarrai zezan. Bartzelonara joan zen ikasketak egitera eta Bartzelona izugarri gustatu izan zaio beti. Hamaika proiektu eta lehiaketa ezberdinetan hartu du parte, Anoetako estadioa eraikitzeko lehen saria lortu zuen adibidez, hala ere proiektua ondoren ez zen aurrera eraman. Gustuko lanbide du Antonek, gainera denbora askorako izango dugu arkitekto bat familian, Antonen ilobak ere arkitektura ikastea nahi baitu!".

# informazioa

## Farmazia - okindegia

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 6 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 7 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Zabaleta |
| **8** | Zabaleta | Zabaleta |
| 9 | Ibañez | Ibañez |
| 10 | Bidasolo | Bidasolo |
| 11 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 12 | Fernandez | Fernandez |
| 13 | Yudego | Yudego |

**FARMAZIAK**

**ESCALA,** Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ,**
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA,** Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

**OKINDEGIA**
**8 igandea** Ibarrenea

## EuskoTren

DONOSTIA-BILBO
Egunero

| | | | |
|---|---|---|---|
| Donostia AMARA | 5.45 | 06.45... | 20.45 |
| Elgoibar | 07.02 | 08.02.. | 22.02 |

* jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

MENDARO-ELGOIBAR
Egunero
Mendaro 07.50 08.50... 21.50

## EuskoTren AUTOBUSAK

BILBO-DONOSTIA
Egunero

| | | | |
|---|---|---|---|
| Bilbo | 06:00 | 7.00... | 20.00 |
| Elgoibar | 07.23 | 08.23... | 21.23 |

* jaiegunetan 8.00etan hasiko dira

ELGOIBAR-MENDARO
Astegunetan
Elgoibar 07.25 08.25 10.25... 21.25

Jaiegunetan
Elgoibar 08.25 09.25 10.25... 21.25

## ELGOIBAR

SIGMA — ARRIAGA

| SIGMA - ARRIAGA | | ARRIAGA - SIGMA | |
|---|---|---|---|
| 8:00 | 8:10 | 8:10 | 8:20 |
| 9:25 | 9:35 | 9:55 | 10:05 |
| 11:10 | 11:40 | 11:10 | 11:20 |
| 11:20 | 11:50 | 11:40 | 11:50 |
| 12:10 | 12:40 | 12:10 | 12:20 |
| 12:20 | 12:30 | 12:40 | 12:50 |
| 13:10 | 13:20 | 13:10 | 13:20 |
| 13:20 | 13:30 | 18:10 | 18:20 |
| 18:20 | 18:30 | 19:00 | 19:10 |
| 19:10 | 19:20 | | |

## INTERESEKO TELEFONOAK

**OSASUNA**
*Anbulatorioa ...................943 03 26 10*
*Planning-a......................943 74 29 50*
*Alkoholiko Anonimoak ...............943 74 03 85*
*D.Y.A (anbulantzia)................943 46 46 22*
*Gurutze Gorria ..................943 74 38 64*
*Mendaroko Ospitalea ...............943 03 28 00*
*Odol Emaileak ..................943 74 39 36*

**GARRAIOAK**
*Eusko Trenbideak...................943 74 04 42*
*PESA (Eibar) ....................902 10 12 10*
*Taxi geltokia ...................943 74 08 98*

**UDALA**
*Euskara Zerbitzua..................943 74 43 66*
*Udal Kirol Patronatua ................943 74 44 15*
*Kultura Zerbitzua ................943 74 21 58*
*Mendaroko Udala..................943 75 61 00*
*Ongizate zerbitzua .................943 74 10 08*
*Udaletxea........................943 74 10 50*
*Udaltzaingoa ....................943 74 13 94*

**BESTELAKOAK**
*Elgoibarko Izarra..................943 74 16 26*
*Kiroldegia ......................943 74 44 15*
*Kontsumo Bulegoa .................943 74 30 88*
*Liburutegia .....................943 74 35 25*
*Musika Eskola ..................943 74 21 45*
*Mintxeta ......................943 74 43 15*
*Parrokia.........................943 74 08 42*
*Postetxea .......................943 74 15 47*
*Gaztetxea .......................943 74 35 72*
*Gazte Informazioa..............943 74 14 61*

**ADINEKOEN ETXEAK**
*San Lazaro Egoitza.............943 74 02 96*
*Zaharren Biltokia...............943 74 05 26*
*Eguneko Zentroa ...............943 74 45 65*

**IKASTETXEAK**
*Haur Eskola ....................943 74 21 41*
*HHI (EPA) ......................943 74 08 80*
*Herri Eskola ....................943 74 08 79*
*I.M.H............................943 74 41 32*
*Institutua*
*Arreiturre ......................943 74 80 19*
*Ezenarro (Meka)..................943 74 80 19*
*Ikastola .........................943 74 44 41*
*Pilar Ikastetxea .....................943 74 13 31*

**KOMUNIKABIDEAK**
*BARREN..........................943 74 41 12*
*El Diario Vasco ................943 74 40 73*
*El Correo Espaæol ...............943 74 10 82*
*Zazpiki irratia ...................943 74 34 74*
*Egunkaria........................943 30 02 28*
*Gara ............................943 31 69 99*

## NU-VAN
## Proiektu eta Altzariak



Ainara Etxeberria

**Dekorazioa, afizioa edo bokazioa?**
Bokazioa, txikitatik gustau izan zaitx dekoraziuarekin lotutako guztixa, arte ederretako ikasketak ere ein nitxun eta denbora bat badaramat honetan.

**Erosotasuna, modernitatea ala kalitatea?**
Ezingo nuke hiruretatik bakarra aukeratu, hirurak dia inportantiak.

**Zer duzu nahiago, diseinu klasikoa ala modernoa?**
Modernua, gehixenbat, neri bizi izatia tokau izan zaitxen garaixakin lotuta daolako.

**Zein kolorez margotuko zenituzke etxe bateko gelak?**
Bezeruan gustuen arabera modu ezbedinez. Nik enpapelau egingo nuke, gaur egun modan dago.

**Noren etxea dekoratzea gustatuko litzaizuke?**
Edonorena, baina, etxe bat dekoratzia dexente kostatzen danez, igual dirudun batena.

**Bi hauetatik bat aukeratzeko garaian: argazkiak ala koadroak ?**
Bixekin gerauko nintzake.

**Elementu dekoratzaile ezinbesteko bat ?**
Iluminazioa. Oso inportantia da, etxe baten dena da.

**Azkenengo berrikuntza dekorazio munduan ?**
Teknologiakin lotuta, pantaila laua duten telebistak, tetxuan, paretian edo beste edonon jartzeko aukeria ematen dutenak.

**Herriko zein fatxadatako kolorea aldatuko zenuke ?**
Kolorea ez, baina trenbide ondoko protekzio ofizialeko etxiak ez zaizkitx batere gustatzen.

**Elgoibartarrok dekorazioari behar besteko garrantzia ematen al diogu ?**
Bai, gainera, jendia betiko estilotik irten eta dekorazio tendentzia berrixekin ausartzen da, bai jende gaztia eta baita nagusixaua ere.

Esther Gurrutxaga

Anchústegui
Sanyfer

ESPOSIZIOA
ALMAZENA
BULEGOA

Olaso industrialdea
Olasope, 5 · 20870 - ELGOIBAR
Tel: 943 74 33 44 - 74 23 71
Faxa: 943 74 37 11

Bukatu S. Coop.
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR
MEKANIZATUEN TAILERRA



MEKANOSA
Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
★ MULTIKOPISTAK
★ FOTOKOPIADORAK
★ PLANOEN BIRREGILEAK
★ ERLOJU INDUSTRIALAK
★ MARRAZKETA MATERIALA
★ INFORMATIKA
★ FAX

URKIDI AHOLKULARITZA
KONTABILITATE
LAN
FISKAL
Kalamua, 12 · Elgoibar
Tel-Faxa: 943 74 18 91
The Hartford
ASEGURUAK

# Emaitza onak lortu dituzte elgoibartarrek Soinu Zahar Txapelketaren lehen jardunaldian

## Martxoaren 7an eta 8an hirugarren jardunaldia jokatuko da Elgoibarren

Mutilek Aurresku txapelketak izaten dituzten bezala, neskek soinu zaharrak dituzte. Antzinako doinuak dira eta dantzari bakoitzak, bere trebezia erakutsiz, doinu bakoitzari jartzen dizkio araututa dauden urratsak.

Liga eran jokatzen dute dantzariek Soinu Zahar Txapelketan, eta bukaeran, puntu gehien lortu dituzten 15 neskek maiatzean Legazpin jokatuko den final handian izango dira. Aurten, Urretxu, Oiartzun, Elgoibar, Beasain eta Lezon jokatuko dira Soinu Zahar Txapelketako jardunaldiak. Bakoitzak zozketaz aukeratutako hiru herritako txapelketetan hartu ahal izango du parte. Bi kategoriatan banatuta dago txapelketa: A maila (7-11 urte bitarteko neska-mutilak) eta B maila (11-15 urte bitartekoak).



*Iaz Oiartzungo txapelketan parte hartu zuten dantzariak.*

Urretxun jokatu zen Soinu Zahar Txapelketako lehen jardunaldia. Bertan, Inazio Berezartua Musika Eskolako 35 neskak hartu zuten parte, 17 neskak A mailan eta 18 neskak B mailan. A mailari dagokionez Maria Ferreirok lortu zuen posturik aipagarriena, laugarren postuan sailkatu baitzen. Ainhoa Agirre zazpigarren sailkatu zen eta Amaia Astigarraga bederatzigarren postuan. B mailan, berriz, Maitane Moreda izan zen elgoibartarrik onena lortutako hirugarren postuari esker. Azkenik, Dorleta Fernandez 9. postuan sailkatu zen.

Txapelketa hauetan dagoen maila altua kontuan izanik neska elgoibartarrak oso ondo aritu zirela aipatu beharra dago. Irakasleek adierazi digutenez, oso zaila izaten da dantzari gazteak jendaurrean bakar-bakarrik aritzera ohitzea eta huts asko urduritasunaren eraginez sortuak izaten dira.

Txapelketako bigarren jardunaldia asteburu honetan, otsailaren 7an eta 8an, jokatuko da Oiartzunen. Hurrengo jardunaldia, berriz, martxoaren 6an eta 7an izango da Elgoibarko Herriko Antzokian. Orduan izango dugu gure dantzari gazteen trebeziak gertutik jarraitzeko aukera.

# 60 baserri inguru pasatu zituzten Santa Eskean

## Elgoibarko Izarrak duela 11 urte berreskuratu zuen baserrietako Santa Eskea egiteko ohitura



Ohitura zaharrei jarraituz, 11. aldiz atera ziren Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteko hainbat lagun Santa Eskean. Tradizioak dioen bezala, Santa Ageda bezpera egunean atera ziren; otsailaren 4an. Bi taldetan banatuta, Plaza Handitik abiatu ziren. Talde batek San Pedro eta San Migelgo baserriak bisitatu zituen, eta besteak, Urruzuno eta San Lorentzokoak. Talde batean, Meabe eta Areitio bertsolariak aritu ziren koplari moduan, eta bestean, Ziarda eta Narbaiza. Trikitilariak Arantza Beristain eta Ekaitz Bazkaran alde batetik, eta Baltzola anaiak bestetik. 60 baserri inguru pasatu zituzten guztira, eta urtero bezala, gaueko 11:00ak aldera, San Migeleko elkartean afaldu zuten.

### Etxegiñakoak bihar

Etxegiña taldekoak bestalde, bihar, otsailak 7 larunbata, aterako dira Santa Eskean. Goizeko 9:00etan bilduko dira Bolatokian, eta herriko kale guztiak pasatuko dituzte kopla kantari.

# Agiña eta Beizama arteko trabesia egin zuten 45 herritarrek

## Bestalde, eski irteeran izena emateko azken eguna otsailaren 9a izando da

Morkaiko Mendizale Taldearen urteko lehen irteera Agiña eta Beizama arteko trabesia izan zen pasa den zapatuan, hilaren 31n. Mendian ibili ostean, Beizamako jatetxe batean egin zuten babajanarekin berreskuratu zituzten indarrak izena eman zuten 45 lagunek. Mendian ibiltzeko eguraldi traketsa izan zutela adierazi digute. Haize bortitza eta euria izan zituzten lagun ibilbide guztian eta inguruko paraje ederretaz gozatzeko aukera gutxi izan zutela aitortu digute. Hau gutxi balitz, azken egunotan egin duen euriak baso bide guztiak lokaztu ditu eta batek baino gehiagok frogatu zituen lokatz irristakorarren ondorioak. Etxetik ateratakoan baino pisu handiagoarekin itzuli ziren arropetan itsatsitako lokatzaren erruz.



*Baba jana egin zuten Beizamako jatetxearen atarian.*

**Luchon-era eski irteera**

Bestalde, Bagneres de Luchon-era eskiatzera joateko irteeran izen emateak martxa onean doazela adierazi digute Morkaikoko zuzendaritzatik. Otsailaren 9ra arte izango da izena emateko aukera. Taldeak Errosario kalean duen lokalean eman daiteke izena astelehen eta ostegunetan 19:00etatik 20:30era. Bazkideek 90 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek 100 euro. Prezioaren barne: autobusa, forfait-a, gosaria, eta lo egitea sartuko dira. Irteera otsailaren 13an, barixakuan, izango da Txankakua zubitik

# Web orri ofiziala jarri du sarean Joseba Etxeberria Athetic-eko jokalari elgoibartarrak

Joseba Etxeberria Athetic-eko jokalari elgoibartarrak bere web orri ofiziala aurkeztu zuen pasa den otsailaren 3an. www.josebaetxeberria.com helbidean sartu eta Josebaren inguruko hainbat datu eta berri irakurri ahal izango ditu bisitariak. Atal batzutan Joseba beraren iritzi eta azken albisteak jaso ahal izango dira beragandik zuzenean. Web orri ofiziala duen Athletic-eko jokalari bakarretakoa da Etxeberria eta atal eta bitxikeria asko jasotzen dituen web orri osatua aurkeztu du. Besteak beste, egunerokoa, biografia, kirol lorpenak eta argazki albuma sartu ditu. Hauez gain elgoibartarrak bere gustuko hamaikakoa ere osatu du mundu mailako jokalari onenekin eta Athletic eta Espainiar selekzioko taldekideei buruz duen iritzia ere ematera ausartu da atal batean. Gainera, jarraitzaileek Josebari idazteko aukera izango dute eta hilabete bakoitzeko 17. egunean Puma etxeak



Josebarentzat bereziki diseinaturiko 10 txapel eta 7 kamiseta zozketatuko ditu idazten dioten guztien artean. Hau gutxi balitz, hileko jarraitzaile edo "fan"-a ere aukeratuko du.

**Errekorra**

Futbol kontuei dagokionez, domeka honetako partidua jokatzen badu Lezamatik atera gabe Athletic-ekin partidu gehien jokatu dituen jokalaria izango da Etxeberria. Bittor Alkizak 287 jokatu zituen eta Josebarentzat 288. partida izango da Murtziaren aurka jokatzen badu.



# Jose Migel Gabilondok Mendiko Rally Txapelketa irabazi du auto historikoen mailan

Jose Migel Gabilondo elgoibartarrak makina bat urte daramatza Euskadiko Mendiko Rally Txapelketan parte hartzen, ia beti Renault Alpine auto ikusgarria gidatuz. Azken txapelketan bikain aritu dira biak eta Gabilondok sailkapen nagusiko laugarren postuan sailkatzea lortu zuen. Aitor Zabaleta moduko gidari ezagunak eta "barketa" deituriko autoak bakarrik izan ziren gai 35 urte dituen autoa garaitzeko. Auto historikoen mailan, 20 urtetik gorako autoetan, alegia, lehen postua lortu zuen elgoibartarrak. 2002. urtean ere Euskadiko Txapelketa irabazitakoa da eta 1994. urtean, berriz, Espainiako auto historikoen rally txapelketa irabazi zuen. Duela 25 urtetik gidatzen du Renault Alpine autoa Jose Migel Gabilondok, 150 zaldiko indarra du eta 1.800 c.c-ko motorra.




## Bizikleten mekanika, konponketa eta mantenu ikastaroa

Lagun Taldea Txirrindulari Elkarteak ikastaro berezia antolatu du oraingoan: bizikleten mekanika, konponketa eta mantenua landu eta irakatsiko ditu ikastaro batean.

Juan Kruz Zabaloa izango da irakaslea eta otsailaren 10etik martxoaren 4ra, astearte eta ostegunetan, 19.00etatik 21:00etara izango dira klaseak.

Lagun Taldea Txirrindulari Elkarteak Aita Agirre plazan duen egoitzan izango da ikastaroa.

Izen ematea Lagun Taldean bertan (943 74 20 89) edo 658 758 458 telefonora deituta egin daiteke (19:00etatik 21:00etara).

Prezioa 25 eurokoa da eta gehienez 20 lagunentzako lekua egongo denez, lehenbailehen izena ematea komeni da.

## ESKOLA KIROLA

### AGENDA

Otsailak 7, 4. Jardunaldia

**ESKUBALOIA, Kiroldegian**

■ **Infantil mutilak** ■
10:50 *Ikastola* **B** - *BHI* **B**
11:45 *Pilar* **A** - *BHI* **A**
12:40 *Pilar* **B** - *Ikastola* **A**
■ **Infantil neskak** ■
9:00 *Pilar* **B** - *BHI* **A**
9:55 *Ikastola* **A** - *Ikastola* **B**

**FUTBOLA, Mintxetan**

■ **Alebin mutilak** ■
10:30 *Herri Eskola* **A** - *Pilar* **A**
11:15 *Pilar* **B** - *Mendaro* **A**
12:00 *Ikastola* **A** - *Ikastola* **B**
■ **Alebin neskak** ■
10:30 *Pilar* **B** - *Herri Eskola* **A**
11:15 *Ikastola* **A** - *Ikastola* **C**

**SASKIBALOIA, Herri Eskolan**

■ **Benjaminak** ■
9:00 *Pilar* **B** - *Herri Eskola* **A**
9:35 *Herri Eskola* **B** - *Herri Eskola* **C**
10:10 *Pilar* **A** - *Ikastola* **A**
10:45 *Pilar* **C** - *Ikastola* **C**
11:20 *Mendaro* **A** - *Ikastola* **B**
11:55 *Mendaro* **B** - *Ikastola* **D**

## EMAITZAK

### Futbola

*Elgoibar* **2** *Gasteiz* **2 (Neskak F-8)**
*Elgoibar* **0** *Segura* **0 (1. erreg.)**
*Elgoibar* **5** *Bergara* **1 (Aleb.)**
*Elgoibar* **2** *Real Union* **2 (Inf.)**
*Elgoibar* **4** *Oiartzun* **0 (Kad.)**
*Anaitasuna* **0** **Haundi 0 (Pref.)**
*Eibar* **3** *Elgoibar* **0 (Jub.)**
*Ilintxa* **0** *Elgoibar* **1 (Neskak)**
*Eibartarrak* **2** - *Pedrusko* **2 (1. erreg.)**

### Esku pilota

**Udaberri Saria**
*Lagunak* **20** *San Esteban* **22 (Jub.)**
*Lagunak B* **22** *Beloki* **10 (Nag.)**
*Lagunak A* **22** *Bergara* **12 (Nag.)**
*Goierri* **22** *Lagunak B* **7 (Kad.)**
*Lazkao* **4** *Lagunak A* **22 (Kad.)**

### Areto Futbola

*Kenci Elg.* **8** *Sasikoa* **4 (Nazional B)**
*Lambroa* **4** *Adarra* **2 (2. maila)**
*Izarra* **9** *Magefesa* **9 (Jub.)**
*Lojantzi* **3** *Lasarte B* **11 (Jub.)**

### Eskubaloia

*Pagoaga Elg.* **12** *San Adrian* **27 (Kad. nesk.)**
*Antt Softlan* **29** *Pulpo* **31 (Sen. mut.)**
*Tecnifuelle Elg.* **31** *Loyola* **20 (Sen. mut.)**
*Cometel Elg.* **17** *San Adrian* **15 (Jub. Nesk.)**
*Askartza* **20** *Tecnomeca Elg.* **14 (Kad. Mut.)**
*Askartza* **35** *Pneumax Elg.* **13 (Jub. Mut.)**

## AGENDA

### Areto Futbola, Kiroldegian

**Zapatua, 7**
**17:00** *Magefesa* *Lauburu* **(Jub.)**

### Futbola, Mintxetan

**Zapatua, 7**
**16:30** *Haundi* *Aretxabaleta* **(Pref.)**
**Domekia, 8**
**12:00** *Elgoibar* *Bergara* **(Jub.)**

### Eskubaloia, Kiroldegian

**Domekia, 8**
**11:00** *Tecnomeca Elg.* *Urdaneta* **(Kad. mut.)**
**12:30** *Pneumax* *Urdaneta* **(Jub. mut.)**

# merkatu txikia

2004-II-6

**OHARRA:**
Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

## Lana

### ESKAERA

♦ Emakumea ggarbiketa lanak egiteko prest, etxeak, portalak... ☎ **666 76 22 95**

♦ Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **943 74 22 01 (Araceli)**

♦ Emakumea nagusiak zaintzeko prest, orduka, fijo edo asteburuetan. ☎ **626 91 49 04**

♦ Emakumea goizez edo arratsaldez umeak zaintzeko prest. ☎ **943 74 27 41**

♦ Emakumea garbiketa lanak egin, umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **639 88 20 04**

### ESKAINTZA

♦ Asteburuetarako sukaldaria behar da. ☎ **670 25 04 29**

♦ Kamareroa behar da asteburuetarako. Esperientziarekin ☎ **652 77 82 10**

♦ Neska pelukeroa behar da. Esperientziaduna eta euskaraz dakiena. ☎ **943 74 18 64**

♦ 40 urtetik gorako emakumea behar ba ume bat eskolara eraman eta ekartzeko. ☎ **943 53 16 16**

♦ Kamareroa behar da. ☎ **943 74 42 65**

♦ Elgoibar-Eibar ingurunerako banatzailea behar da. Orduka. ☎ **607 46 80 14**

♦ Esperientziadun kamareroak behar dira asteburuetarako. ☎ **670 25 04 29**


San Lorentzon
**Borda eta lurrak salgai.**
1.000 m². Kolunpioen ondoan.
Oso eguzkitsua.
Egokia elkarte eta umeak dituztenen bikoteentzat.

*ARBELOA INMOBILIARIA San Frantzisko, 34*
*Tel.: 943 74 84 27 / 699 95 30 21*


## Bestelakoak

♦ Elgoibarko bi mutil gaztek lur sailtxo bat alokatu edo hartuko lukete, nahiz eta zikina egon, baina ekonomikoa. ☎ **606 01 42 57**

♦ Txakurkume jaio berriak oparitzen ditut. ☎ **645 710 111**

♦ Perikito hori batek ihes egin zidan astelehenean, hilaren 2an, Urasandi kalean goian, ezkerreko pisuetan. ☎ **943 74 30 52**

♦ Herri Eskolako tanborrada egunean zilarrezko erlojua galdu nuen eskolako patioan. Aurkitu duenak Udaltzaingoan laga dezala mesedez.

♦ Caritasek butanozko berogailua hartuko luke. ☎ **943 74 15 09**

♦ Txikipark traspasatzen da Eibarren. ☎ **653 733 759**

## Lokalak

♦ Bajo bat saltzen da Olasope 4an. Garaje edo almazenerako egokia. 90m2. ☎ **639 93 32 81**

♦ Osasun arloko zentro batek lokala alokatzen du Eibarren. ☎ **943 79 97 46**

♦ San Bartolome kalean lokal komertziala alokatzen da. Ez du obra beharrik. Prezio onean. ☎ **943 58 40 39 (20:00-21:30 artean deitu)**

♦ Soziedade bihurtzea gustatuko litzaidakeen lokala daukat. Bazkide izateko jendea behar dut. ☎ **943 53 16 27/686 26 27 27**

## Salerosketak

♦ 1997ko furgoneta salgai. Kanpingerako egokitua. Toldoa, ohea, mahaia, berogailua, alarma. 102.000 km. Egoera onean. 6.600 euro. ☎ **669 02 63 55**

♦ Citroen C-15 furgoneta salgai. Pintatu berria. 1000 euro. Egoera onean. ☎ **943 74 35 26/630 85 03 90**

♦ Wolkswagen Passat TDI familiarra salgai. Urdina, 105 zaldi, 102.000 km, 4 airbag, aire egokitua, CD, EE, DA, ABS, ASR, 17ko llantak, ordenagailua, bainilla larrua, esku libreak. ☎ **651 700 752**

## Etxebizitzak

♦ Neska gazteak pisua hartuko luke alokairuan. ☎ **605 74 13 70**

♦ Pisua alokatzen da Elgoibarko erdigunean. ☎ **628 122 927**

♦ Emakumeak pisua hartuko luke alokairuan. ☎ **626 91 49 04**

♦ Pisua salgai Mendaron. Berria, altzariekin, garaje marraduna eta trasteroa. ☎ **686 045 321**

♦ Etxea salgai erdigunean. 2 logela, egongela, komuna, sukaldea eta ganbara. Altzariekin. ☎ **943 74 23 21**

♦ Pisua salgai Plaza Txikian. Altzariekin, bizitzera sartzeko moduan. Oso polita. Berritua. 2 logela. Dena kanpora begira. ☎ **646 50 28 66**

♦ Etxea salgai Santa Ana kalean. 2 logela, egongela, komuna, sukalde-jangela eta 2 ganbara. ☎ **665 70 30 24**

♦ Pisua salgai erdigunean. 3 logela. Berritua. Altzariekin. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **661 42 60 77**

♦ Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **943 74 28 32/686 60 02 39**

♦ Elgoibarren pisua osatzeko jendea behar da. ☎ **610 45 85 52 (Nerea)**

♦Etxea salgai Santa Ana kalean. Eguzkitsua, 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **636 22 31 42**

♦ Pisua salgai Santa Ana kalean. ☎ **625 70 94 44/625 70 94 45**

♦ Donostiako Antiguo auzoan atiko polit bat salgai. ☎ **629 53 40 94**

## Partikularrak

♦ Ingeles Filologian Lizentziatuak klasev-partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Goiz eta arratsaldez. 10 urteko esperientzia. ☎ **943 74 31 67**

## Garajeak

♦ Garajea salgai Pedro Muguruza Etorbidean, Toletxe taberna azpian. ☎ **943 74 34 49**

## Agurrak



♦ Zorionak **Oihane Urain**, gaur 2 urte bete dituzulako. Aitatxo, amatxo eta anaia Anderren partez.



♦ Zorionak **Aitor**, otsailaren 7an, 4 urte beteko dituzulako. Elgoibarko familiakoen partez.



♦ Otsailaren 1a egun berezia izan zen. Zorionak **Jon Ander!** Familiako guztien, eta bereziki, Aiararen partez.



♦ Aupa **potxolita**, zorionak zure lagunen partez. Ondo pasa zure egunean.



♦ Zorionak **Ander**, otsailaren 2an, 3 urte bete zenituelako. Familiako guztien partez.



♦ Zorionak **Arkaitz Oteiza**ri, otsailaren 7an, 8 urte beteko dituelako. Familiako guztien partez.



♦ Zorionak **Ainhoa Sanchez Printes**, otsailaren 7an, 3 urte beteko dituzulako.



♦ Zorionak **Oscar Martinez**, gaur, hilak 6, 17 urte bete dituzulako. Guraso, Ibai eta familiako guztien partez.



♦ Zorionak **Naiara**, otsailaren 2an urtebete egin zenuelako. Anaia Ibon eta familiako guztion partez, muxu handi bat.



♦ Zorionak **Ainhoa**, igandean 8 urte beteko dituzulako. Etxekoen eta bereziki, Aitor, Maier, Julen eta Zorioneren partez. Ondo pasa!



♦ Zorionak **Iñaki**, atzo, hilak 5, zure eguna izan zelako. Espero dugu ondo pasatu izana. Semealaba eta amatxoren partez.



♦ Zorionak **Malen** zure bigarren urtebetetzean. Aita, ama, lehengusu eta familiako guztien partez.



♦ Zorionak Debabarreneko mutil guapoenentzat, **Egoitz** eta **Ales**, hilaren 7an bi urte beteko dituzuelako. Aitxitxa eta amama, osaba-izeba, Irati eta Mirenen partez.

♦ Zorionak **Aitor Kortazar**ri, hilaren 4an, 5 urte bete zituelako. Bere lagun Alaitz eta Iratiren partez.

gazte informazioa

*Elgoibarko Gazte Informazio Gunea*
*Kultur Etxean. Bigarren solairuan.*
*e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es*
*Tel. 943 741 461*

*Ordutegia:*
*Astearte-ostiral: 16:30-20:00*

### BEKAK

**Ikerketa**

Arabako Foru Aldundiak eta Metropoli Fundazioak "Hiriak eta lurraldeak" ikerketa-beka antolatu dute. Metropoli Fundazioak Madrilen du egoitza eta hiri- eta lurralde-gaiei buruzko ikerketan dago espezializatuta. Aukeratutako bekadunak fundazioaren jakintza-alor anitzeko taldean parte hartuko du, nazionalitate ezberdineko graduatu ondoko beste gazte batzuekin batera lan eginez. Bekaren iraupena bi urtekoa izango da eta zenbatekoa 18.000 euro urtean. Epea: otsailak 25

### BERRIAK

**Xirika**

'Xirika' gazteek egindako gazteentzako astekari berria da; gaurko gizarteak bultzatzen duen gazte eredua iraultzeko bokazioarekin sortu dena. Euskara hutsezko 24 orrialdeetan informazioa, aisialdia, gogoetak, eztabaidak, denbora-pasak, agenda eta abar topatuko ditu irakurleak. Otsailaren 5etik aurrera ostegunero izango da kioskoetan.

**www.kolokon.com**

Portugaleteko Udalak www.kolokon.com web orria jarri du martxan gazte jendeari droga eta sexuari buruzko egiazko informazioa helarazteko asmoz. Web orri honetan ekintzen agenda kontsultatzeaz gain, drogei buruzko kontsultak egiteko aukera dago eta sexua, drogak eta Rock & Roll-ari buruzko lotura interesgarriak aurkitu daitezke.

**Gazte News**

Eusko Jaurlaritzak Gazte News izeneko aldizkaria kaleratu du. Aldizkari hau Gazte Txartelaren titularrei zuzenduta dago, bertan txartelak eskaintzen dituen deskontu eta abantailak aipatuko dira eta dohainik banatuko da unibertsitate, institutu eta Gazte Informazio Bulegoetan. Lehen alea eskuratu nahi duenak bertatik pasa besterik ez du.

### LEHIAKETAK

**Argazkiak**

Arabako Argazkigintza Elkarteak XXXV. San Prudentzio Argazki Lehiaketa antolatu du. Bertara gai libreko zuri-beltz nahiz koloretako argazkiak aurkez daitezke, tamaina librean eta laborategiko edozein prozedura erabilita. Egile bakoitzak lau lan aurkeztu ahal izango ditu gehienez ere, eta sari bakarra jaso. 3.600 euro saritan. Epea: martxoak 19

**Literatura**

Deustuko Unibertsitateak IX. Literatur Lehiaketa antolatu du. Bertara euskaraz nahiz gaztelerazko lanak bidal ditzake edonork. Bi kategoria: Narrazioa (10-15 orrialde bitartean) eta Poesia (100-250bertso bitartean). 1400 euro saritan. Epea: maiatzak 5

### LANA

**Universal Mediterranea**

2004 urteko denboraldian PORT AVENTURAn lan egiteko eskariak jasotzen dabiltza. Bidali eskabide orria edo curriculum-a recursos.humanos@portaventura.es e-mail helbidera edo Universal Mediterranea, Av. Alcalde Pere Molas, km2, 43480 Vila-Seca (Tarragona). Eskabide orriak Gazte Informazio Bulegoan jaso daitezke edo www.universalmediterranea.com webgunean kontsultatu.

# agenda

2004-II-6

## 6 BARIXAKUA

**22:15 "OPERACION TERAPIA" IKUSKIZUNA**
Taldea: Aldan Company produkzioak
Herriko Antzokian
Sarrerak: Kultur Etxean (goizez)




## 7 ZAPATUA

**9:00 "ETXEGIÑA" TALDEAREN SANTA ESKEA**
Irteera bolatokian
Elgoibarko kale eta auzoetan
**11:30 HERRI ESKOLAKO ATE IREKIEN EGUNA**
Gaztelu puzgarriak eta tailerrak
**17:00 TXAN MAGOAREN IKUSKIZUNA**
Herri Eskolako gimnasioan

## 8 DOMEKIA

**16:30 "EGIZU LO, TARTALO" IKUSKIZUNA**
Taldea: Dar Dar Produkzioak
5-10 urtekoentzat
Herriko Antzokian

## 10 MARTITZENA

**18:30 GURASOEN VI. JARDUNALDIAK**
Kultur Etxeko Hitzaldi gelan
Antolatzailea: Herri Eskolako Gurasoen Elkartea
**19:00 "ETIOPIA" ARGAZKI ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA**
Egilea: Sabin Osoro
Kultur Etxeko erakusketa gelan
Antolatzailea: Miski GKE

## 11 EGUAZTENA

**17:00 KANDELEN ARGIPEAN (EUSKARAZ)**
3, 4 eta 5 urtekoentzat
Udal Liburutegian
**17:30 KANDELEN ARGIPEAN (EUSKARAZ)**
6, 7 eta 8 urtekoentzat
Udal Liburutegian

## 13 BARIXAKUA

**19:00 GAZTE ASANBLADA**
Gaia: Gaztetxearen gaur egungo egoera, Gaztetxe berrirako Udalaren proposamena eta Gaztetxearen etorkizuna.
Gaztetxean

## ANTZERKIA

**"Operación Terapia"**

Aldan Company Produkzioak taldearen eskutik "Operación Terapia" ikuskizunak bisitatuko gaitu gaur, hilak 6, Herriko Antzokian. Gaueko 22:15etik aurrera Operación Triunfo telebista saio arrakastatsuan oinarritutako saio umoretsua ikusi ahal izango da. Igande honetan, otsailaren 8an, berriz, "Egizu lo, Tartalo" bost eta hamar urte bitarteko haurrentzako ikuskizuna eskainiko du Dar Dar Produkzioak taldeak Herriko Antzokian. Arratsaldeko 16:30ean hasiko da saioa.

## ERAKUSKETAK

**"Etiopia" Argazki erakusketa**

Sabin Osoro elgoibartarrak "Etiopia" izeneko argazki bilduma jarriko du ikusgai otsailaren 10etik 29ra bitartean Kultur Etxeko erakusketa gelan. Miski Gobernuz Kanpoko Erakundeak antolatutako erakusketa da eta ordutegia honakoa izango da: astelehenetik zapatura (19:00-21:00) eta jaiegunetan (12:00-14:00).

## ZINE kluba



### "La vida mancha"

**Zuzendara: Enrique Urbizu.**
**Antzezleak: Jose Coronado, Zay Nuba, Juan Sanz.**

Fitok (Juan Sanz) urte asko daramatza Pedro (Jose Coronado), bere anai nagusia ikusi gabe, umetatik hain zuzen ere. Fito Juanarekin ezkonduta dago eta ume bat dute. Horrez gain, kamioi bat ere badu, baina baita bankuarekin zorra ere. Jokua da bere bizioa eta daukanaz gozatzea eragozten diona. Halako batean Pedro etxera itzuliko da anaiarekin egun batzuk pasatzeko asmoz. Ustez motza eta funtsik gabekoa izan behar zuen egonaldiak, bizitza aldaraziko die, bihotzean betiereko arrastoa utziz.

## IKASTETXEAK

**Ate Irekien Eguna Pilar Ikastetxean**

Pilar Ikastetxeak Ate Irekien Eguna ospatuko du otsailaren 14an, zapatuan. 10:00etan eskolaurreko gelak zabalduko dira umeentzako, zenbait ekintzatan parte hartzeko aukera izankik. 11:00etatik 13:00etara bitartean Atxutxiamaika Aisialdi Taldeak prestatutako hainbat jolasetan parte hartzeko aukera izango dute Pilar Ikastetxera hurbiltzen diren guztiek.

## JARDUNALDI INFORMATIBOAK

**Gazteak eta baserria**

Gipuzkoako Enba Nekazal Elkarteak gazteak baserrian instalatzeko dagoen politikari buruzko jardunaldi informatiboa antolatu du gaur egun indarrean dauden laguntzak ezagutzera emateko eta aldi berean, amaitzear dagoen gazte planean jasotzen diren neurrien berri emateko. Izan ere, instalatu nahi duten gazteek oso informazio gutxi dute instalazioa sustatzeko dauden laguntzen gainean eta asko noraezean daude. Bestalde, adineko jendeak ez ditu ustiapenak gaztetzeko dauden aukera guztiak ezagutzen. Zalantzak argitze aldera antolatu dira jardunaldiok bazkide, zein baserritar guztientzat. Jose Mari Losa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Teknikaria eta Itziar Arteaga, Enbako abokatua izango dira hizlariak. Jardunaldiak, berriz, Tolosako Kultur Etxean izango da otsailaren 9an, astelehenean, goizeko 11:00etan.

## SOLIDARITATEA

**Odol Emaileak**

Elgoibarko odol emaileek datorren ostiralean, otsailaren 13an, izango dute zita berria mediku eta erizainekin. Elgoibartar guztiei dei egiten diete antolatzaileek odola eman dezaten, baina bereziki 18 urtetik gorako gazteei, odola emateak bizitza asko salba baititzake. Arratsaldeko 18:30etatik 20:30era izango da odola emateko aukera anbulatorioan.

## HITZALDIAK

**Gurasoentzako jardunaldiak**

Elgoibarko Herri Eskolako Gurasoen Elkarteak antolatuta Gurasoentzako VI. Jardunaldiak hasi ziren pasa den otsailaren 3an. Bigarren jardunaldi edo hitzaldia, berriz, martitzen honetan, hilaren 10ean izango da Kultur Etxean. Hirusta Kolektiboko kide bat izango da hizlaria eta landuko duen gaia: “2-12 urte bitarteko haurren garapen afektibo-sexuala”. Garapen honetan adin bakoitzean ematen diren ezaugarriak eta gurasoek hartu ditzaketen jarrera ezberdinak aztertuko dira, eta noski, alternatibak posibleen berri emango da. Arratsaldeko 18:30ean hasiko da hitzaldia.

## TXAPELKETAK

**Areto jokoak**

Jubilatuen Biltokiak areto joko txapelketa ezberdinak antolatu ditu otsailaren 11n eta 12an jokatzeko. Musean, Tutean, Seikoetan edo Dominoan parte hartu ahal izango dute Biltokiko bulegora gerturatu eta izena ematen dutenek. Txapelketak arratsaldeko 17:00etan hasiko dira.

## zine
### KARTELDEGIA

**ELGOIBAR, Herriko Antzokian**

**“Planta Cuarta”**

7, zapatua: 19:30-22:15
8, domekia: 19:30-22:15
9, astelehena: 22:15

**“La vida mancha” (Z.K.)**

12, eguena: 22:15

**“Los Impostores”**

13, barixakua: 22:15

**EIBAR, Unzaga**

**“La mansión encantada”**

6, barixakua: 19:30-22:15
7, zapatua: 17:00-19:30-22:30
8, domekia: 17:00-19:30-22:30
9, astelehena: 19:30-22:15
10, martitzena: 19:30-22:15
11, eguaztena: 19:30-22:15

**EIBAR, Rialto**

**“Pegado a ti”**

6, barixakua: 19:30-22:15
7, zapatua: 17:00-19:30-22:15
8, domekia: 17:00-19:30-22:15
9, astelehena: 19:30-22.15
10, martitzena: 19:30
11, eguaztena: 19:30

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

## ZINEA



## "Cuarta Planta"

**Zuzendaria: Antonio Mercero.**

**Antzezleak: Juan Jose Ballesta, Luis Angel Prieto, Gorka Moreno.**

Migel Angel (Juan Jose Ballesta) buru duen 15 urteko mutil koadrilak kirola eginez edo gaiztakeriak bata bestearen atzetik pentsatu eta gauzatuz pasatzen ditu orduak. Adin bereko beste edozein gaztek egingo lituzkeen gauzak dira, baina filmeko protagonistak ez daude ikastetxeko jolaslekuan, hezurretako minbizia dutenei dagokien ospitaleko solairuan baizik, laugarren solairuan, alegia. Gaixotasunaren erruz gabezia asko dituzte, baina umorea da gaitzari aurre egiteko duten tresna nagusia.

2004-II-6



Aste honetako erretratu zaharra herritar batek laga digu. 1959ko abuztuaren 9an, Aizkorri (1531 metro) mendiko aterpetxearen atarian ateratako argazkia da. Garai hartan, Morkaiko Mendizale Elkarteak abuztuan antolatzen zuen Aizkorrira mendi irteera eta egun honetan, Zarauzko Pagoeta Mendizale Elkartekoekin egin zuten txangoa. Urte hartan Gillermo Garmendia (†) zen Morkaiko Elkarteko presidentea. Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri zaizkigun mendizaleak:

Teilatu gainean: **Jesus Narbaiza (†) "Elus"** eta **Enrike Eguren**.

Zutik, ezkerretik eskumara: **Zarauztarra**, **zarauztarra**, **zarauztarra**, **Asensio Otegi**, **ezezaguna**, **Pepe Arano (†)**, **zarauztarra**, **zarauztarra**, **zarauztarra**, **Sabin Osoro** eta **zarauztarra**.

Makurtuta, ezkerretik eskumara: **Manuel Esnaola "Muxillo"**, **ezezaguna**, **ume ezezaguna**, **Patxi Agarre**, **Fermin Arrese**, **Juan Mari Mugerza**, **Marisol Gurrutxaga**, **Eustakio Goñi**, **Roberto Zubiaurre** (†), **Amado Uncilla**, **Guillermo Garmendia** (†) (presidentea) eta **zarauztarra**.



*ESKERTZA*

*2004ko urtarrilaren 18an, 82 urte zituela hil zen*
***CATALINA ROSILLO ALBACETE**ren sendiak,*
*bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



*ESKERTZA*

*2004ko urtarrilaren 21ean, 83 urte zituela hil zen*
***REMIJIO BERNEDO LARIZ**en sendiak,*
*bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*

Bai esan?

- Maila guztiak
- EGA
- Irakaskuntza zein administraziorako perfilak

GOIZEZ, ARRATSALDEZ ETA GAUEZ

Izena emateko epea otsailaren 13ra arte

aek Euskaltegia

Plaza Txikia, 3
Tel.: 943 74 13 32
elgoibar@aeknet.net

Ikasle, guraso eta langabetuek
MATRIKULA ERDIA
(Udalaren laguntzaz)

¡díselo en euskara!





ZEZEN-BIDE
AUTO ESKOLA

Kotxerako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** *teoria ikasteko gela berria* !





ORDUTEGIA
10:00etatik-12:30era
15:00etatik-20:30era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behea**
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



Instalakuntza berriak
www.bmw.es/leza
BMW
¿Te gusta conducir?
Itxaronaldia amaitu da.
Leza Motor-ek ateak zabaldu ditu Deba Behean.
Leza Motor
Sigma Poligonoa
Xixilión, 2
Tel.: 943 74 00 11/13 86
Elgoibar
Realaren ibilgailu ofiziala